

ASTEARTEA

2018/07/10
6. urtea, 903. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Artista gazteak erakarri asmoz, oinarriak argitaratu dira Zizurkilen

Plazida Otaño erakusketa gunea artista gazteei ireki nahi dei Kultura sailak; deialdia irekita dago // 3

Lakunza, Karakus eta Uson Espainiako txapeldun

Irati Lakunzak hiru probatan izendatu dute Espainiako Txapeldun // 7



Jokin Etxeberria probaren une batean, anaia Garikoitz laguntzaile lanetan ari zaiola. IRATISAIZAR

Jokin Etxeberriak Gipuzkoako Sega Txapelketa irabazi du

Bedaion bizi den amasarrak 60 kiloko aldea atera dio Julen Gabirondo urnietarrari; Andoni Goikoetxea gazteluarra laugarren geratu da, Igor Esnaola legorretarrarengandik bi kilo eskasera // 6

Azkarate intsektuz betetako ziegan sartu dutela salatu du sendiak

Larriki gaixo dagoen Manu Azkarate presoaren familiak salatu du zimitzez betetako ziega batera eraman zutela aurreko ostiralean // 4

Hondamendi naturalei aurre egiteko protokoloa, Tolosan

Krisi egoeretan parte hartzen duten eragileekin batera gida osatzen ari da Tolosako Udala. Helburua erresilientzia maila hobetzea da // 2



2011n, Amartz auzoko birbilgunea; uholdeek kalte handiak eragin zituzten. I. ZUBELDIA

Hondamendi naturalei aurre egiteko bideak zehazten ari da udala

Aldaketa klimatikoaren aurrean, Tolosako erresilientzia maila hobetzea da proiektuaren helburua; Ihobek diruz lagunduta, Tecnun-ekoikertzaileek eskaini dute formakuntza

Itzea Urkizu Arsuaga

Krisi egoeretan parte hartzen duten eragileekin batera, gida edo protokolo bat sortzen aritu da, Tolosako Udala. Klima aldaketak sor ditzakeen hondamendi egoerei aurre egiteko gaitasuna areagotzea da helburua, eta Tecnun Ingeniaritza Eskolako ikertzaileek gidatu dituzte saioak; proiektua Ihobe Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenerako sozieta- te publikoak lagundu du diruz.

Ertzaintzak, Babez Zibilak, Ur

Agentziak, Tolosako Udaleko Obrak eta Zerbitzuek, Tolosako Udaleko Ingurumen saileko kideek, Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako kideek, Tolosako Udaltzaingoak, Osasun sailak, Gurutze Gorriak, Gipuzkoako Urak-eko kideek, Gipuzkoako suhiltzaileek eta Tolosako DYAKo kideek hartu dute parte saioetan, helburu bakarrari begira: erresilientzia maila hobetzea.

Erresilientzia mailak neurtzen du, Tolosak inpaktu handi bati aurre egiteko duen gaitasuna.

Eta, azken urteotan, nazioarteko hondamendi naturalen %70 izan dira, klima aldaketak eragindakoak; duela 20 urte erdiak ziren.

Horrenbestez, Tolosarako aurreikuspen bat eginez ekin diote lanari, Ihobek-ek eta Tecnuneko adituek: arrisku nabarmenenak aztertu eta gero, Tolosan uholdeek eta bero olatuek eragingo lituzteke kalte material eta pertsonal handienak.

Bide beretik, herriko azpiegitura kritikoak ere aztertu dituz-

te; hiri batek funtzionatzeko ezinbesteko diren azpiegiturak, alegia. Azpiegitura kritikotzat jotzen dituzte, adibidez, energia, ura, garraioa, telekomunikazioak, osasun sistema nahiz hezkuntza.

Udalak azaldu duenez, «uste baino lotura eta menpekotasun handiagoa dago azpiegitura horien guztien artean». Horrela, batek kale egiteak «erreakzio kate bat» sor dezake, eta gainerakoek ere funtzionatzeari utzi. Erresilientzia maila hobetzeko, beraz, azpiegitura horiek ere hobetu behar dira.

KASU PRAKTIKOAK

Hondamendi naturalen aurrean eman beharreko erantzunak hobetzeko, Tecnuneko ikertzaileek muturreko egoerak proposatu dizkiete parte hartzaileei, lanean aritu diren egunetan.

Lehenengoa egoera negutiarra izan da: ziklogenesia, elurra eta haizea, eta Ori ibaia gainezka. N-1 errepidea moztuta dago, eta lur-jauziren bat suertatu da ospitalerako igotzeran. Elektrizitatekerik ez dagoenez, komunikazioa etenda dago herrian, eta ospitalean ere gain hartu die lanak, gripe epidemia bat dela eta.

Bigarren kasuan, berriz, hila- beteko lehorre baten aurrean jarri zituzten parte hartzaileak. Ur faltak eta bero izugarriak azpiegitura batzuk eten ditu, eta gizarteko sektore ahulenak ospitalea betetzen ari dira.

Balitzeko hondamendi egora horien aurrean norbere burua prestatzeko beharraz jabetzea ezinbestekotzat jo du Olatz Peon Tolosako alkateak, eta horretarako protokoloak eguneratzea tresna ona dela azaldu du: «Ezinbestekoa da, gainera, krisiak kudeatzen aritzen diren eragile esanguratsuenen ekarpenak jasotzea, haiek baitira, finean, eza- gutza handiena dutenak. Ziur gaude Tolosaren erresilientzia maila hobetzeko aukerak badi- tugu».

Enpresen lehiakortasuna sustatzeko diru laguntza lerro berria, Tolosan

Irailean zabalduko dute proiektuak aurkezteko epea; enpresa ertain eta txikien berrikuntza sustatu nahi du udalak

Erredakzioa

Tolosako Udalak ordenantza berri bat sortu du, industria enpresen lehiakortasuna sustatzeko. Tolosan bertan eta Apatza Errekan dauden enpresei begirako diru laguntza lerroa izango da, eta irailean zabalduko dute proiektuak aurkezteko epea.

Enpresa ertain eta txikiak dira nagusi Tolosan, 50 langile edo gutxiagokoak, eta horiei begirako ordenantza da, sortu berri du- tena. Udalak azpimarratu du, «Tolosako ekonomiaren motora» dela industriaren sektorea: «Enplegu sortzaile nagusia da, batez ere, metal-mekanika arloari loturikoa, enpresa handi- gogoz lanean aritzen dena».

Horrela, beraz, enpresa txiki horien lehiakortasuna sustatze- ko, zientziaren eta teknologien esparruak lehenetsi nahi ditu Tolosako Udalak: biozientzia, osasuna, energia, ekoizpen au- rreratua, elikadura, ekosiste- mak, giza habitata eta, azkenik, industria kultural, sortzaile eta digitala.

Olatz Peon alkateak azaldu du, enpresetan berrikuntza sustatze- a «beharrezkoa» dela, «lehiakortasunari balio erantsia emateko». Bide horretan, konponbi- de berritzaileekin batera, hezkuntzari jarri dio fokua: «Lanbide heziketa etorkizuneko langileen prestakuntza da».

Enpresen Lehiakortasunerako diru laguntzak, proiektu bakoitzaren kostuaren %75 finantzatu- tuko du, gehienez ere; diru laguntzak ezingo du 3.000 euro baino altuagoa izan, gainera. Eskatzaile guztien egitasmoak jasotakoan, udalak norgehiagoka bidez esleituko ditu diru laguntzak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua



ANOETAKO HERRI IKASTOLAK
2018-2019 ikasturterako lanpostu hauek eskainiko ditu:

LANPOSTUA:

- BHko Teknologiko irakaslea.
- DBHko Arterako irakaslea (lanaldiaren %33an).

OINARRIZKO ESKAKIZUNAK:

- Euskara: EGA titulua edota C2.
- Dagokion titulazioa.

Curriculumak e-mailez bidali behar dira: anoeta@ikastola.eus helbidera uztaillaren 15erako.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburra.eus-en



LIBURUZ OSATUTAKO ESERLEKUA

Aiztondoko Plazida Otaño liburutegian bazituzten hamaika liburu zahar gordeta erabilera hobea emateko zain, eta honako hau bururatu zaie liburuzainei: eserleku bat osatzea. Liburutegiaren bazter batean jarri dute eta dagoeneko jendeak proba dezake. Arantxa Zabala eta Irene Urruzola liburuzainen esanetan, «oso eserleku erosoa da». ATARIA

Artista gazteei eman nahi diete aukera Plazida Otañon

Aiztondoko liburutegiko erakusketa gunean erakutsi nahi duten artistentzako oinarriak argitaratu ditu Zizurkilgo Kultura sailak

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilgo Udaleko Kultura sailak kudeatzen du Plazida Otañoko erakusketa gunea eta areto horretako erakusketak programatzeko orduan, artista gazteak sustatu nahi ditu. Horretarako, 2018-2019 ikasturterako deialdia luzatu du. Jasotako eskaeren artean sei proposamen hautatuko dira.

Arlo artiskikoko erakusketak egiteko eskaera adin nagusiko edozein artistak egin dezake. Berziki, artista gazteei beraien lana azaltzeko aukera eman nahi zaie, eta beraz, interesdunek egin nahi duten erakusketa artistikoaren banakako edo taldekako proposamen bat aurkeztu beharko dute. Aukeraketa eta plangintza garaiz egin ahal izateko, erakusketa proiektuak irailaren 14ra arte aur-

keztu ahal izango dira Zizurkilgo udal bulegoetan.

ERAKUSTEKO BALDINTZAK

Plazida Otañoko erakusketa gunek 23 metro inguru luze den erakusketa-horma du eta obrak zintzilikatzeko errailak dauzka. Jendearentzat irekita egoten da astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Larunbatean 09:30etik 13:30era ere zabalitzen dute.

Batzorde batek egingo du hautaketa, Kultura saileko ordezkari eta errealitate artistikoa ezagutzen duten pertsonen artean osatutakoak. Aipatu dutenez, arraza, sexu, erlijio edo beste arrazoiengatik edozein bereizkeria era sustatzen duten edukiak dituzten proiektu guztiak eta pertsonaren

funtsezko eskubideen aurka doazenak, hautaketatik kanpora gertaruko dira.

Posta arruntez edo mezu elektroniko bidez aurkeztu beharko da dokumentazioa, eta besteak beste, proiektuaren titulua, justifikazioa (argumentua eta diskurtsoa), erakusketa osatzen duten piezen zerrenda eta deskribapena eta gutxienez bost obra aurkeztu beharko dira, behar bezala katalogatuta. Ondoren, hautatuko artistak arduratuko dira erakusketa muntatu eta desmuntatzeaz eta piezen garraioaz. Erakusketaren inaugurazioan era aktiboan parte hartu eta herritarrei zuzendutako tailer bat ere eskaini beharko du hautatutako artistak. Zizurkilgo Kultura saila arduratuko da, bere aldetik, komunikazioaz eta erakusketa zaintzeaz.

GUTUNA

Amasa Villabonaren 400. urteurrenko aferak

Udal gobernuak egindako agerraldiaren albistea: Irudian alkatea eta lau zinetz negotzi jeltzale (horieta-tik hiru herritik kanpokoak), titularra: «Amasa eta Villabona elkar-tu zirela 400 urte beteko dira 2019an».

Ez zaigu normala iruditzen herriaren urteurrenaren aurkezpena PNVkoek bakarrik eta ezer esan gabe egitea. Ez al litzateke egokiagoa herritarren ordezkari guztiak batera aurkeztea? Dagoeneko erabaki batzuk hartuta daude: Urteurrenko logoa eta Santio eta San Martin jaietarako zapiak ateratzea.

PNVko ordezkarien atzean, logotipo bat ageri zen. Norkegin ote du? Inon agertzen ez zenez, udaleko plenoan galdetu genuen. Erantzuna harrigarria izan zen, ez omen zekiten nork egin zuen, «komunikazio enpresa batek egin du, baina ez dugu gogoratzen zeinek». Udaleko fakturak begiratu-ta jakin genuen egia: logoaren faktura A. Garinen izenean dago. Bai, udalak Amavi aldizkaria egiteko kontratatu zuen PNVko ki-dearen izenean. PNVren jardunean ohikoa den klientelismoaren eredu bikaina.

Ez al da egokiagoa herriaren urteurrenko logoa herriko norbait egitea? Lehiaketa publiko bat egin zitekeen, herritarrei proposamenak aurkezteko aukera ema-

nez eta logotipo irabazlea modu parte hartzailean (bozketa bidez) erabakiz. Dagoeneko gastatu den dirua, sari gisa erabili zitekeen.

Baina ez, PNVkoek erabaki dute logoa herritik kanpoko alderdikide batek egitea eta kitto.

Santio eta San Martin jaietarako zapie dagokionez, hona, alkatearen hitzak: «Aurtengoan zein datorren urtean logotipo berriaren irudia izango duten zapiak banatuko dira Villabonako Santio festetan eta Amasako San Martin festetan».

Urteurrena 2019an izanda, zein zentzu dauka aurten logo hori duten zapiak banatzea? Zer ospatzen da? 399. urteurrena? Honek ez du logikarik eta lotuta dago pasa den urtean udalak Santioetako zapiekin egindakoarekin. Herri mugimenduko taldeek ateratako zapia boikoteatzeko, pasa den urtean udalak lehen aldiz zapiak atera zituen. Bestalde, Santioetako jai batzordean ez dute ezer azaldu eta Amasako jaien antolatzaileak ere, prentsatik jakin dute.

Jeltzaleak gauza bera egiten aritu dira legealdi hasieratik, edozein aitzakia erabiltzen dute beren buruaren propaganda egiteko. Denona, herritar guztiena izan behar lukeen Amasa-Villabonaren 400. urteurrena bera ere, interes alderdikoietarako erabili nahi izatea izan da azken adibidea.

Amasa-Villabonako
EH Bildu udal taldea

Adunako herri azoka antolatzeko bilera

ADUNA // Azaroaren 11n Adunan antolatu nahi duten azokan parte hartu nahi duten guztien artean batzar bat egingo dute. Parte hartzea eta antolaketa izango dute hizpide gerturatzen direnek; gaur, kultur aretoan, 19:00etatik aurrera.

Egun pasa joango dira Zestoa eta Zumaiara

AIZTONDO // Larunbatean Zestoko Lili jauregian bisita teatralizatua ikusi eta Zumaian bazkalduko dute Aiztondoko herritarrek. Uztaillaren 12a da azken eguna izena emateko eta norberak bere herrian eman behar du. 35 euro ordaindu beharko dira.

Beti nahi jatetxea

Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia

Tel.: 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errearteri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Azkarate, zimitzez betetako ziega batean

Larriki gaixo dagoen Manu Azkarate presoaren senitartekoeek salatu dute intsektuz betetako ziega batera eraman zutela pasa den ostiralean



Manu Azkarateren askatasuna eskatzeko egindako kanpainetako bat. JOSU ARTUTXA

Erredakzioa Tolosa

Manu Azkarate preso tolosarra Alcalá Meco (Madril, Espainia) espetxean dago eta ostiralean bere galerian izandako miaketa orokor baten ondorioz, bere eskubideak beste behin urratu dituztela salatu dute senitartekoeek.

Ostiralean miaketa orokorra egin zuten bere ziegan eta horren ondorekin bere ziega gaizki utzi zutela eta txukun uzteko esan zien presondegiko funtzionarioei. Funtzionarioek berak egin zezala agindu zioten. Horren aurrean, Azkaratek esan zuen berak ez zuela horrelakorik egingo.

Gertakaria eta gero funtzionarioek beste ziega batera eraman zuten eta hori zimitzez beteta zegoela salatu zuen. Azkaraterentzat hori «arrisku faktore» bat dela esan dute gertukoek, gogoratu ultzeratutako hanka bat

duela bere gaixotasunaren ondorioz.

Preso tolosarraren abokatuak salaketa jarriko du Espainiako Auzitegi Nazionalako Espetxe Zaintzako epailearen aurrean «miaketa arbitrarioarengatik» eta «eragiten dioten osasunaren aurkako egoerarengatik».

Tratamendu mediko zehatza eta ohikoa behar du Azkaratek, eta Alcalá Mecoko espetxean (Madril, Espainia) dago ingesatuta. Hara eraman aurretik, Soto del Realen (Madril, Espainia) egon zen, eta bi alditan eraman behar izan zuten ospitalera, espetxeko bizi baldintzak direla eta osasuna okertu zitzaizkion.

GAIXO

Azkaratek barize esofagikoak eta porta zaineko kabernoma ditu, publikoki larriki gaixo daudela azaldu diren hogeitasei presoetako bat delarik. Pedro Sanchez Es-

painiako presidentek gaixo dauden eta 70 urtetik gora duten presoak hurbiltzearen alde azaldu da eta horien artean legoke tolosarra. Sanchezek Madrilgo Diputatuen Kongresuari babeska eskatu zion, espetxe politikak aldatze bidean, eta PPre kritikak jaso zituen. Gobernuak ez du zehaztasun handiegirik eman, dena den, eta esan du kasuak banan banan aztertuko dituztela eta espetxeetako tratamendu batzordeek egingo dituztela preso-erregimen buruzko txostenak.

Azkarateri hamalau urte zituela gibelaren inguruan dagoen porta zainean duen kabernoma diagnostikatu zioten. Gaixotasun larria, arraroa eta sendaezina dela azaldu dute senitartekoeek.

Arazo honek barne hemorragiak sortzen dizkio eta esofago-barizearengatik arazo baskularrak izaten ditu askotan. Honek guztiak batez ere, hanketan eragiten dio.

Hankak handituta izaten ditu beti, ultzeratuta izaten ditu, eta pantiak eramaten ditu. Espetxealdiek egoera larritu dutela ere salatu dute. Kartzelaldietako estresak isipulak, hemorragiak eta abar areagotu dizkiote.

Manu Azkarate hirutan izan da kartzelan eta poliziaren jazarpenarengatik, 2011n Iparraldera ihes egin zuen.

Bertan zela euroagindua onartu zutenean, Marseillara joan zen, Frantziara, eta han atxilotu zuten 2016. urteko abenduaren 15ean.

Iurreamendiko auzotarren festa handia

Garai bateko auzoek bakarrik ez, berriagoak direnek ere badituzte euren jaiak; Tolosako Iurreamendin asteburuan ospatu dituzte

Erredakzioa Tolosa

Ostiralean eta larunbatean ospatu dute euren festa Iurreamendiko auzoan. Txupinazioa baino lehenago ezkaratzen arteko probak egin zituzten hala ere, guztiak batera afaldu aurretik.

Jaien barruan gazteen erronka egin zuten, urtero bezala. «Duela hamar urte inguru hasi ginen festak ospatzen, eta orain, auzoa biziberritu denean, belaunaldi berri bat indarre-

an sartu dela nabaritu dugu, eta beraz, aldaketaren garaia heldu da», esan zuen auzoko Patxi Amantegik.

Bi egunetan haur eta helduei begirako ekitaldiak izan dituzte eta auzoko bazkaria ere egin zuten. 60 auzotar inguru elkartu ziren, eta hori baino lehen helduen 3x3 saskibaloitxo txapelketa jokatu zuten, lehen aldiz. David Pickup eta Xabier Gabarain izan ziren irabazleak eta Pello Elola eta Jon Etxetxipia bigarrenak.



Ezkaratzen arteko lehia, bazkaria eta 3x3 txapelketa. J.A./M.A./I.G.L.



zozketak



Atarikideentzat produktu sorta dugu

TOLOSALDEKO ATARIA-REN PRODUKTU SORTA

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak** arte: **943 65 56 95** edo www.ataria.eus



ZUMAIARA JOAN DIRA

Bidania-Goiatz eta Errezilgo Eguneko Zentroko onuradunek, etxez etxeko laguntzako onuradun batzuekin batera, ibilaldia egin zuten larunbatean Zumaia. ATARIA



IKASTURTEA BOROBILDU DUTE

Altzoko Kultur Batzordeak ikasturteko azken ekitaldia egin zuen ostiralean. Batzarremuñon elkartu eta urtekaria aurkeztu zuten lehenik, eta Miel Joakin Eleizegiren jaiotzaren 200 urteurrena aitxaki, *Handia* ikusi zuten, gero, plazan. ATARIA



DANTZALATINDARRAK

Ikasturtea bukatzeko ekitaldia egin zuten Tolosako kideek Zerkausian. Hilean behin elkartzen dira kultur etxean. Dantza latindarrak zabaltzea da euren helburua eta baita horiek ezagutu eta praktikatzeko aukera ematea ere. I.G.L.

Iñaki Letamendia, 50 urtez sanferminetan

Iruñeko Udalaren eta bertako Udal Txistulari Bandaren omenaldia jaso du Letamendiak, 50 urtez sanferminetan txistua jotzen aritu eta gero



Iñaki Letamendia omendu zuten asteburuan, Iruñean. ATARIA

Erredakzioa Tolosa

2013. urtean 100 urte bete zituen Tolosako Udal Txistulari Bandak sanferminak girotzen. Urte horretan ere omenaldia jaso zuen bandak. Bada, urte horien ia erdia darama Iñaki Letamendiak Iruñera joaten. 1968. urtean joan zen, lehenengoz, hamabost urte

zituela, Miguel Martinez de Lecea txistulariarekin.

Hori dela eta, Iruñeko Udalaren eta Iruñeko Udal Txistulari bandaren omenaldia jaso zuen igande eguerdian, musikari eskainitako guztiagatik.

ZAPI GORRIA

Joseba Asiron alkatearen esku-

tik jaso zituen opariak: Iruñeko Udalaren zapi gorria eta Caravinagre buruhandiaren oroigarria. Bi banden arteko laguntasuna goraiatu zuten Iruñeko omenaldian.

Bertan izan ziren, besteak beste, Olatz Peon Tolosako alkatea, eta Nerea Letamendia eta Maite Ruiz de Eguilaz zinegotziak.



TOLOSAN ERE SANFERMIN

Sanferminak ospatu dituzte Tolosako Alde Zaharrean. Zezen gurpildunek eta buruhandiek alaitu zituzten kaleak eta haurrek zein gaztetxoek ederki gozatu zuten korrika egiten. Kabi Alai elkartekoek antolatu dituzte bigarrenez, Alde Zaharreko sanferminak. Batez ere, haurrak jantzi ziren zuriz eta zapi gorriarekin, festa giroa emanez Alde Zaharrari. I.G.L.



Andoni Goikoetxea gazteluarrak laugarren amaitu zuen finala, Igor Esnaolarengandik bi kilora. IRATI SAIZAR



«Txartel gorria medio, momentu gogorak bizitu nituen amaieran»

JOKIN ETXEBERRIA GIPUZKOAKO TXAPELDUNA

Gipuzkoako txapela lortu ondoren, Euskal Herriko Segatxapelketa jokatu du orain Jokin Etxeberriak.

Zure bilakaera ikusita, ez da ezustekoa txapela irabazi izana.

Bagenekien lan on bat egiteko gai ginela eta txapeldun izatea geneukala. Baina hortik txapeldun izatera jauzi handia dago. Emaitzarekin gustura geratu gara, beraz.

Non egon zen gakoak?

Jarraikortasunean. Hasi eta bukatu erritmo berdintsuan egin nuen. Txartel gorria medio, momentu gogorak bizitu nituen, Julen Gabirondok bukatu arte itxaron behar horretan. Baina nik uste asmatu genuela erritmo on bat segitzen eta lan on baten emaitza lortu genuela uste dut.

Gabirondo, Esnaola eta Goikoetxea: aurkari horiek txapelaren balioa handitzen dute.

Txapela irabazteko modurik onena hori da. Esnaola bat, Gabirondo bat, Goikoetxea bat hor egotea... niretzat izugarria da horien aurrean irabaztea. Pilotari batentzat Irujo eta horien aurrean irabaztea bezala da. Irabazteko dagoen plazarik onena igandekoa zen. Uste dut orain ari naitzela konturatzen atzo egin nuena lan handi bat izan zela.

Aldaketa zure bilakeran?

Sega munduan gazteon ofizio falta nabaria da. Astean hiru edo lau orduko saioak egiten ditugu. Garai batean egunero egiten zizuten. Aurreko urteetan teknika eta erramienta lantzen ibili gara. Hori ikusita, aurrean, neguan prestatzaile fisiko batekin hasi nintzen. Etekin igandean ikusi genuen. Jauzi handia nabaritu dut.

Gipuzkoako txapelak eskualdean jarraituko du

Asteasuko Bulano baserriko zelaietan jokatu da Gipuzkoako Segatxapelketaren finala, ohiko eran, eta lau segalariren artean

Asier Imaz Asteasu

Iaz, ezustekoa emanaz, Jexuxmari Ormaetxea *Urki*-k irabazi zuen txapela. Orendaindarrak, besteak beste, Jokin Etxeberria menderatu zuen Gipuzkoako Segatxapelketaren finalean. Aurten, *Urki* finaletik kanpo ge-

ratu zen. Txapelak buru berria izango zuen, beraz. Finala igandean jokatu zen Asteasun. Izen handiko lau segalari elkartu ziren bertan, eta amaieran, Bedaion bizi den Jokin Etxeberria amasarrarentzat izan zen txapela. Aurtengoan ez zen ezustekorik izan.

Sailak mozten lehena Jokin Etxeberria izan zen; ordubeteko lana 54 minututan amaituz. Epailak ez zuen txisturik jo ordea, 40. minutuan txartel gorria erakutsi baitzioten Etxeberriari.

Segalari batek denbora amaitu baino lehen bere sail guztiak moztu baldin baditu, epailak txistu jotzen du. Beste segalarientzat une horretan lanak amaitzen dira. Txartel gorriarekin ez da horrelakorik gertatzen, ordea, beste segalarietan lanean jarraitzen dute nahiz eta txartel gorria duenak sail guztiak amaitu.

Etxeberriak lanak amaitu zituen sei minutu geratzen ziren ordubeterako. Horri esker, Julen Gabirondok bere sailak amaitzeko denbora izan zuen. 56. minutuan amaitu zituen lanak urnietarrak. Txartel gorririk ez zuenez, orduan bai, epailak txistua jo zuen. Horren ondorioz, Esnaolak eta Goikoetxeak segak askatu behar izan zituzten une horretan.

Amasarrarentzat ez ziren une gozoak izan azken minutu horiek: «Merezita atera zidaten txartel gorria, maila batzuen azpian ez nuelako belarra moztu. Sailak aurrean bukatuko nituela banekien, baina tristura horrekin aritu nin-

SAILKAPENA

Gipuzkoako Txapelketa

1. Jokin Etxeberria	2.811 kilo
2. Julen Gabirondo	2.752,5 kilo
3. Igor Esnaola	2.623 kilo
4. Andoni Goikoetxea	2.621 kilo

tzen azken zatian. Bi minutuko oparia egin nion Gabirondori». Eta horren eragina kilotan zenbatekoa izango zen ikusteko zegoen. Biek sail berdina moztu zituzten. Baina jakina da sail guztiak ez direla berdina izaten, eta belarra behetik edo ez hain behetik mozteak bere eragina ere izaten duela. Azkenean, Etxeberria izan zen kilo gehien moztu zituen segalaria, Julen Gabirondo baino 80 kilo gehiagorekin. Horri txartel gorriaren beste ondorioa gehitu behar izan zioten epailak, hau da, 20 kiloko penalizazioa. Esnaolak hirugarren egin zuen, eta Goikoetxea gazteluarrak laugarren.

ARGAZKI GALERIA

Igandeko finalak argazkietan eman zuena TOLOSALDEKO ATARIA-ren webgunean dago ikusgai:
www.ataria.eus

TALDE KOMERTZIALAREN KOORDINATZAILEA. (KOM-2018 erreferentzia)

Tokiko hedabide talde batek talde komertzialaren koordinatzaile eta dinamizatzailea behar du. Koordinatzailea publizitate eskaintza berezietan ere arduratuko da.

Eskaintzen da:

- > Irailetik urtea amaitu arteko lan kontratua, eta luzatzeko aukera.
- > Zati finko batez eta komisioz osatutako soldata.

Eskatzen da:

- > Kudeaketan eta arlo komertzialean ezagutzak izatea.
- > Taldeen gidaritzan eskarmentua izatea.
- > Komertzial lanean esperientzia izatea.
- > Antzeko lanetan eskarmentua izatea.
- > Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- > Gutxienez EGA edo baliokidea den euskara maila izatea.
- > Gidabaimena eta autoa izatea.

Interesa izanez gero, bidali CVa gizabaliabideak@berriataldea.eus posta elektronikora, KOM-2018 erreferentzia zehazturik, 2018ko uztaillaren 16a baino lehen.

Lakunza, Karakus eta Uson Espainiako txapelkun geratu dira

Hegats igeriketan eta eskaladan lortu dituzte urrezko dominak hiru eskualdeko kirolariek; Irati Lakunza munduko txapelketara joango da hurrengo astean

Mikel Iraola

Igarondo Urpekoak taldeko lau igerilari aritu dira, asteburuan, Hegats Igeriketako Espainiako Txapelketa jokatzeko Alacanten (Herrialde Katalanak). Guztira lau domina eskuratu dituzte, urrezkoak guztiak. Irati Lakunza izan da txapelketako izar nagusienetako bat, hiru bider izendatu baita Espainiako txapelkun. Parte hartu duen hiru probak irabazi ditu tolosarrak: 100 eta 400 metro eskafandra, eta ur gaineko 400 metroak.

Datorren astean Munduko Txapelketa jokatu da Belgraden, eta bertan izango da Lakunza, Espainiako selekzioarekin, baita bere entrenatzaile den Jon Espina ere.

Laugarren domina Aras Karakusek lortu du, 100 metro eskafandran, ezustekoa emanda. Igarondo Urpekoak taldeko beste bi igerilari ere aritu ziren lehian Alacanten. Patxi Monge laugarren izan zen 100 eskafandran, eta Mikel Esteban ur gaineko 100 metroko proban parte hartu zuen.

Igarondo taldeak igerilari guztiak zoriondu dituzte.

AIMAR USON

Espainiako Eskalada Txapelketa asteburuan jokatu zen Santiago de Compostelan (Galizian). Ka-



Goran, Karakus eta Lakunza. Beheran, Uson hirugarren postuan. ATARIA

dete mailan Aimar Uson izan zen txapelketa. Olinpiar proba modalitatean nagusitu zen Alpin Uzturreko gaztea, hau da, zailtasuna, abiadura eta bloke proben konbinaketaz osaturi-

tzen den lehiaketan. Aurrez, ekaina amaieran, Aimar Usonek hirugarren postua eskuratu zuen Espainiako Koparako baliagarria zen proban, 16 urtez azpikoen kategorian.

Kaikuri kendu dio ohorezko lekua Tolosaldeak

Asteazkenean Gipuzkoako Txapelketa jokatuko dute eskualdeko arraunlariek

Asier Imaz

ETE Ligako lehen estropada igandean jokatu zen Donostian, Kontxako uretan: II. Donostiara Kaiarriba bandera. Bederatzi ontzi aritu ziren lehian, bi txandatan banatuta. Aurrena bi traine-ru atera ziren, ondoren, bi minutura beste hiru. Horiek osatu zuten lehen txanda, eta Tolosaldea izan zen bostetan azkarrena.

Bigarren edo ohorezko txandan lau ontzi hartu zuten parte. Denborarik onena eta bandera Donostiarrak (11.23) lortu zuen, hau da, Naroa Urkola anoetarraren eta Olatz Lopez tolosarraren ontziak. Deustu (11.39) bigarren sailkatu zen, Hibaikaren (11.44) aurretik. Kaiku izan zen lauga-

rren iritsi zena helmugara, baina bizkaitarrek Tolosaldekoen denbora ez zuten hobetu. Zazpi segundoko tarte horrek, hurrengo igandean eskualdekoei ohorezko txandan aritzeko aukera emango die, azkenean laugarren amaitu baitzuten Donostian.

ASTEAZKENEAN ETA IGANDEAN

ETE Ligako bigarren estropada igande arratsaldean jokatu da Camargon, Kantabrian. Ohorezko txandan ariko dira eskualdekoak. Aurrez, ordea, Gipuzkoako Txapelketa jokatu dira Murtrikun, asteazkenean, 18:00etatik aurrera. Tolosaldea trainerua bertan izango da Gipuzkoako beste traineruekin batera.

Oinatz Bengoetxea handi batek irabazi dio Jokin Altunari

AMEZKETA // Lau t'erdiko San Fermin Txapelketaren finala larunbatean jokatu zen Iruñeko Labrit pilotalekuan. Oinatz Bengoetxea leitzarra nagusitu zitzaion Altuna III.a amezketarrari, 22-17ko emaitzarekin. Bengoetxea VI.ak izugarri arriskatu erakustaldia eskaini zuen. Hasiere batean ez zen txapelketa jokatzea leitzarra, baina azkenean txapelkun atera da, lesioa gaindituta.

Santio Jaietako pilota txapelketako partidak gaur Bearzanan

AMASA-VILLABONA // Santio Jaietako final-laurdenak erabakita daude, eskuz binaka, nagusien mailan. Gaur eta ostegunean jokatuko dira partidak, 19:00etatik aurrera. Gaur, Lizaso-Esnaola eta Eskudero-Usandizaga ariko dira. Baita Apeztexea-Murgiondo eta Canabal-Aldave ere. Ostegunean, Urmeneta-Urruzola eta Urkizu-Labaka izango dira, baita Urbietta II-Urbietta I eta Barandiaran-Santxez ere.

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ATARIAn jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Jexux Zelaia Lizaso

Gogoan izan haugu
eta izango haugu,
eskerrik asko!

Oharra: Gorpua Azpeitiko Tanatorioan egongo da gaur 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Ez da elizkizunik izango.

AIZARNA, 2018ko uztaillaren 10a



ASTEARTEA, 2018KO UZTAILAK 10

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletze

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetalea: 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus

Bezere arreta zerbitzua: 902 82 02 01



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 10

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. *Buho eta Maravillas* erakusketa. Topic-en. Sevillako bitxotxongilo taldeek, Buho eta Maravillas, 2007. urtean egin zuten bat, eta erakusketa honetan beraien 30 urteko ibilbidearen adierazgarriena ikusi ahal izango da. Teknika, material eta estilo ezberdinetako 100 txotxongilo baino gehiago. Sortze-artistiko baten ondare aparta. Artisan lanaren isla, profesionaltasunez, errespetuz eta arreta handiz egingakoak.

Tolosa. *Hirian Hazi* erakusketa. Renaud Harrison-en, Art Fix (Kanada), *Hirian Hazi* erakusketa kolektiboa ikusgai dago. Bertan, «haurtzaroari buruzko hausnarketa egiteko gonbidapena egiten da, umeak eta hiria, umeak eta aiton-amonak eta haurtzaroko oroitzapen beldur eta txunditurak erabiliz oinarritzat». GKO Galleryn.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eguneko albisteak, eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearekin, Iñigo Asensio Kale Kantoitik, Jon Ander Galarragaren eskutik Ekokultura, teknologiaren tarte eta Joseba Landa Bartzelonatik.

11:00-12:00. Hamaiketakoak.

Alegialdeko albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaiok.

Musika saioa.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00-20:00. Goizeko saioak utzitako onena.

20:00-20:30. Kokondo.

Tenaren musika saioa.

21:00. Mingaina Txulora.

Sexualitateari buruzko saioa. Erotika eta drogak.

28 KANALA

12:30. Kulturizketak.

(Maite Larburu eta Jabier Muguruza).

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

22:00. Ad! Iskanbila (Alaiki).

22:30. Zer jan.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa.

Mujika Martinez, E. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 670915.

TOLOSA. Gauekoa.

Morant Barber, R. Zabalarreta lora-tegiak, 1. Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Uda beteko giroa. Egun osoan zehar eguzkia nagusituko da eta nahiz eta temperatura zertxobait beherago kokatu, bero egingo du eta eguraldi eguzkitsua ez gozatzeko aukera izango da. Tenperatura maximoak 24-26 gradutan kokatuko dira. Hai-zeak ipar ukitua izango du egun osoan eta horren ondorioz egunaren amaieran behe-hodeiren bat ikusi dezakegu.

Bihar. Uda beteko giroak jarraipena izango du baina egoera ezegonkortu egingo zaigu. Egunaren hasieran eta arratsaldearen lehen orduak arte giro eguzkitsua izango da eta bero egiten jarraituko du, non maximoak zertxobait igokoren diren, 25-27 gradutan kokatuz. Arratsaldean bero-hodeiak garatu eta ekaitzetara joko du, non Tolosaldeko punturen batean gogor jo dezakeen.

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

HERRIAN BERTAN LANA AURKEZTUZ

20 urte dituen Maddi Etxeberria larrauldarrak herritarren aurrean aurkeztu du bere lehen eleberria: *Zein usain dute oroitzapenek?* Donostian, ekainaren 11n egin zuen lehen aurkezpena eta Larraulgo udal liburutegian bigarrena. Bertaratutakoengalderi erantzun die Maddi Etxeberriak, herritarrekin batera argazkiak atera ditu eta liburuak sinatzeko tarte ere hartu du larrauldarrak. J.MIRANDA